


Sodomia zigortua



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Ascension uhartea, 1725eko maiatzaren 5a. “Holandar ontziteriako komandantearen eta kapitainen aginduz, ni, Leendert Hasenbosch, uhar-te bakartu honetan lehorreratu naute, nire zorigaitzerako”.

Herbeheretar marinela, 1695ean Hagan jaioa, Ekialdeko Indietako Herbeheretar Konpainiarako ari zen lanean eta, Prattenburg ontzian, jaioterrirako itzulera bidaian, “sodomia” ekintzengatik ezarri zioten zigorra: Afrikako kostaldetik 1.500 kilometrora eta Amerikatik 2.300 kilometrora dagoen uhartean abandonatu zuten; kanpadenda bat, upel bat ur, hazi batzuk eta Bibliaren ale bat utzi zizkioten, baita egunkaria idazteko baliabideak ere.

Egunkari horretan jaso zuen lehen hilabeteen ur freskoa bilatzen saiatu zela eta erreskaterako itxaropenari eutsi zio-la. Bakardadeak jota, txori bat domestikatzeko saiatu zen, baina hil egin zitzaion. Tipulak, babarrunak eta ilarrak erein zituen, baina lur idor hark ez zion uzta oparorik emango. Ekainean haluzinazioak izaten hasi zen: “Aspaldi ezagutu nuen gizon baten espiritua nirekin egon da tarte batean”.

Uharteko ur iturri natural bakarra lehortu zenean, asko ahuldu zen Hasenbosch. Gainera ez zuen lortu ahuntzak harrapatzea eta arratoiek uzta eskasa lapurtzen zioten. Hauxe idatzi zuen abuztuaren 22an: “Dortoka handi bat harrapatu nuen eta bere odola edan nuen, litro bat ia”. Aurrerago pixa ere edaten hasi



Marinel abandonatua (1909), Howard Pyle.

zela idatzi zuen. Egunkariko azken sarre-ra 1725eko urriaren 14koa da.

Handik hilabete gutxira, 1726ko urtarilean britainiar ontzi bat iritsi zen Ascension uhartea. Hasenboschen denda eta egunkaria aurkitu zituzten, baina marine-laren arrastorik ez. Egunkariaren ingelesezko lehen bertsioa urte berean argitaratu zuten, *Sodomy Punished* (Sodomia zigortua) izenburupean. Marine-laren benetako izena ezabatu zuten eta, izenburuak argi uzten duenez, homosexualitatearen ondorio larriak erakustea zuen helburu.

1990eko hamarkadan Michiel Koolbergen historialaria gaia ikertzen hasi zen Hosenboschen izena berreskuratu eta errebindikatzeko. Egun, beste historialari herbeheretar batek, Elwin Hofmanek hartu du lekukoa. Hofmanen hi-

tzetan, “XVIII. mendeko lehen urteetan, Herbehereetan, homosexuali ez ikusia-rena egiten zieten edo zuhurki onartzen zituzten. Baina porrot militarren andanak maskulinitate krisi moduko bat eragin zuen, baita homosexualen aurkako prozesu basatiak ere”. Hasenbosch zigortu eta bost urtera Utrechtoko sodomia epaiketak egin zituzten; 300 homosexual epaitu eta gehienak exekutatu zituzten.

Leendert Hasenboch uharte batean abandonatu eta 300 urte geroago, Hofmanek antzeko egoera baten zantzuak antzematen ditu gaur egun ere: “Krisi garaitan, balio tradizionalak babesteko eta maskulinitatea berrezartzen saiatzeko joera dago, eta horretarako queer komunitatea gogorrago zigortzeko arriskua areagotzen da”. ●



THE JORDAN MUSEUM

Qumrameko biribilkiak eta AA

Qumrameko biribilkiek eta Itsaso Hileko Esquibribuek (K.a. III-K.o. I) judaismoaren eta kristautasunaren garapenari buruzko informazio eta interpretazio asko eragin ditu aurkitu zituztenetik. Berriki AA erabiltzen duen Enoch datazio sistemaren bidez, izkribu zaharrenak uste baino ehun urte zaharragoak direla ondorioztatu dute, eta hipotesi

berriak berehala iritsi dira. Izkribue-tako batzuk Itun Zaharreko egileek beraiek idatziak izan daitezkeela diote prentsako titular batzuek. Baina ikerla-naren emaitza baino erabilitako tresna nabarmendu dute beste batzuek: AAn oinarritutako datazio sistemek Karbono 14 eta beste metodo tradizional batzuk ordezkatuko al dituzte? ●